

2019KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Euskararen Nazioarteko Eguna, **ospatzeko** eta **aldarrikatzeko** eguna da.

Ospatzeko, euskararen gizarte erakundeek, euskaltzaleek eta erakunde publikoek lan eskerga egin dugulako euskararen normalizazioan azken hamarkadetan eta hizkuntza asko ez bezala bizirik iritsi delako gaur egunera. Baina ospakizunak neurritz egin behar dira, izan ere, jakitun gara, euskara bizirik egon arren, osasunetik urrun dagoela. UNESCOk berak hizkuntza ahulen zerrendan jarri du euskara eta euskara normalizaziotik urrun dago oraindik.

Euskararen normalizazioa **aldarrikatzeko** eguna da, hau da, euskal herritar guztiontzat eguneroko arlo denetan euskara ohiko eta lehentasunezko hizkuntza izan dadila aldarrikatzea.

Guk erantzukizun zuzena dugu horretan, hizkuntz politikaren ardura gurea ere baita eta eragin behar du Udalaren tresna nagusiak (udal barruko zein udalerriko planak, erabilera irizpideak eta neurri praktikoak zein aurrekontuak) emankorrak izan daitezen Euskal Herri euskaldunaren bidea bultzatzeko.

Euskara normalizatuko bada, hizkuntza politika, burujabea eta kanpo esku hartzerik gabea behar dugu ezinbestean, herritarren aktibazioarekin batera. Euskara dugu berezko hizkuntza, normalizatu beharrekoa, gure kultura eta nortasunaren funtsezko osagarri. Euskarak badu balio erantsia, denok irabazten dugu berenormalizazioarekin.

Guzti horregatik beharrezkoa da gaurdanik, gure instituzioetan, euskara normalizazio bidean jartzeko politika eta erabaki ausartak hartzea, besteak beste: euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatu eta egoera soziolinguistikoaren arabera euskara administrazioko lan edota zerbitzu hizkuntza bihurtzea; euskararen arnaguneak (espazio sozial euskaldunak) bultzatu eta indartzea; erakunde ezberdinetan egiten ditugun kontratazio-publiko eta lehiak eta guztietan hizkuntza-irizpideak txertatu eta garatzea; hitun berriak lortu eta euskararen ezagutza herriz-herri unibertsalizatu eta doakoa izan dadin urratsak ematea; herrietan euskara batzorde zabalak sortu edo gorpuztea, eta euskalgintzarekin, eragileekin zein sektore desberdinetako erakundeekin elkarlana bultzatzea.

Hiztunen aktibazioa da euskara normalizatzeko bidean gakoetako bat. Astigarragan 2016, 2017 eta 2018an hiztunak aktibatzeke ekimenak burutu ziren ("100 da 100... Berrehun Euskara Taldeak" antolatutako "100 da 100 200 orduz euskaraz, nirekin bai!" ekimena eta Euskaraldia) eta aipagarria izan da herritarren eta herriko hainbat elkarteren parte hartzea. Euskaraldiaren hurrengo erronka dugu aurrez aurre, 2020ko abenduan jomuga jarrita.

Hori guztia kontuan izanik, Astigarragako Osoko Bilkurak hurrengo adierazten du:

1) Astigartar guztiak gonbidatzen ditugu instituzio publikoekin (eta bereziki udalarekin) dituzten harreman guztietan, ahozkoetan zein idatzizkoetan, euskaraz jardundaitezten.

2) Astigartar guztiak gonbidatzen ditugu 2019ko Euskararen Nazioarteko Egunaren harira Astigarragan burutzen diren ekimenetan parte hartzera eta ospakizuna eta aldarrikapenauztartzera.

3) Astigartar guztiak eta herriko eragile eta herritar guztiak gonbidatzen ditugu 2020ko Euskaraldia lantzeko 2020ko urtarriletik aurrera burutuko diren jardueretan partehartzera.

2019-11-14